

Irailekoa



Irailekoa

irudiak:

IRRIMARRA ilustrazioa

ipuina:

Yolanda Arrieta




BOOKTEGI

Guztion liburua, guztiontzat

booktegi.eus

Iraila ira edo ira-belarra biltzeko hilabetea da, baina baita eskolak hasteko hilabetea ere. Agian izen berria asmatu behar genioke. Ez duzue uste? Eskolaila edo...

Tira, iraila mahatsaren hilabetea ere bada eta Azerik ondo daki hori. Bere familian haragijaleak dira denak, baina berak fruta du gustuko; batez ere mahatsa. Azeri iraila heltzeko zain-zain egoten da, urtero, eta mahatsondoak bisitatzen ditu, mahatsei adi-adi.



Gaur harrizko etxe handi bati begira dago.
Etxeko horman mahats-landare haanndi
bat dago. Eta landarearen adarretatik
zintzilik, mahats-mordo ugari.



—Ñoo! —esan du, bere artean—. Gustura jango nituzke oraintxe lauzpabost mahats...

Azerik mahats-ale bat hartu eta ahora eraman du.

—Too! —esan du, bere bostean—. Gogortxo, aukeran...

Goraxeago jaso du oina, gorputza ahalik eta gehien luzatuz:

—Ea hau...

Beste ale bat eskuratu du. Ahora sartu eta:

—Kia!—esan du, lurrera tu eginez—. Mikatzaaa!



Azeri ez dago amore
emateko prest, ordea.
Gorantz begiratu du:
—Teilatupekoek itxura
hobea dute...



Hirugarrenez ahalegindu behar duela pentsatu du. Hormari begiratu eta gora igotzeko zerbaiten bila hasi da. Ez du ezer aurkitu.

—Landaratik igoko naiz! —esan du, bere kolkorako, lau oinak mahatslandarearen adarretan kateatuz.

Baina mahatsaren adartxoak hain dira argalak eta sendotasun gabeak, zerbait igo orduko, katapun-pan-pun!, Azeri lurrera erortzen da, behin eta berriz.



—Hau zoritxarraaa! Hau kalamitateaaa! —oihukatu du,
oinekin lurra indartsu zapalduz—. Jopelasss!

Hura amorrua! Azerik sekulako mahats-mordoak dauzka,
aurre-aurrean, eta ezin hartu!





Luzaroan ibili da, hara eta hona, hormaren gorengo mahatsetara nola igo asmatu guran.

Iluntzean, eguzki amandrea berriro lotaratzean, zera esan du bere ezinaren estalgarri:

—Mahats horiek ez dira oraindik ondo heldu. Kalte egingo lidakete jango banitu. Hilaren bukaeran itzuliko naiz, udazkenaren hasieran...

Eta Azerik bere txokora alde egin du, burua tente eta buztana harro.



Izan ere, ahaztu egin zait esatea! Irailaren
hirugarren astean hasten da udazkena!
Irailan zenbat gauza, ezta?



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu